

horoskopoa

- A R I E S**
martxoak 21 - apirilak 20
Pegamentoa zer den badakizu? Ba, hori berori erabili zure ezpainak itsasteko.
- T A U R U S**
apirilak 21 - maiatzak 20
Laster zure bizitzako opari eta sorpresarik onena jasoko duzu.
- G E M I N I**
maiatzak 21 - ekainak 20
Hainbeste barre egin baino lehen hortzak ondo garbitu. Izan ere,...
- C A N C E R**
ekainak 21 - uztailak 20
Kilikagarria da zure ondoan egotea. Ez zenekiela? Galdetu inguruko.
- L E O**
uztailak 21 - abuztuak 23
Egia esan, ez zara munduko pertsonarik politena, baina pozik egon zaitezke.
- V I R G O**
abuztuak 24 - irailak 23
Oinez ikasi ostean ere bada gozkeria. Ez zenekiela?...
- L I B R A**
irailak 24 - urriak 23
Bira batzuk eman itzazu. Ea zorabiatu eta isiltzen zaren pixka batean.
- S C O R P I U S**
urriak 24 - azaroak 23
Betaurrekoak jarrita ere ez zenuke aurrean duzuna ondo ikusiko. Itsututa zaude.
- S A G I T A R I U S**
azaroak 23 - abenduak 23
Gizontzen ari zara. Bibotea ere ateratzen ari zaizu...
- C A P R I C O R N I U S**
abenduak 24 - urtarrilak 20
Modaren muga guztiak gainditu dituzu. Jar zaitez ispluaren aurrean.
- A Q U A R I U S**
urtarrilak 21 - otsailak 18
Beti ere, antzeko arroparekin. Bada zerbait aldatzeko garaia.
- P I S C I S**
otsailak 19 - martxoak 20
Eskuak beti zikin izateak ez du esan nahi lana besterik ez duzula egiten.

Uxue Agirre

efemerideak

Kefrenen piramidean sartu ziren

1817ko martxoaren 2an Juan Bautista Belzoni Kefrenen piramidean sartu eta faraoiaren hilobia gordetzen zuen gelaraino iritsi zen. Belzoni pertsonaia bitxia zen: erlijioso zela Frantziako Iraultzan komentutik ihes egin eta Ingalaterrara heldu zen. Egiptoko monumentu arkeologikoek bere arretera erakarri, eta Kefrenen piramidean sartzeaz gain, Seti I.aren hilobia, Berenice hiriaren hondakinak eta Zubarako esmeralda meategia ere aurkitu zituen.

1746an Jose Apeztegia mutil erraldoia hil zen Erratzun.

1827an Baserritarra aldizkaria kaleratu zen Bilbon.

SANTUAK Basilio, Jenara, Zuriko.

telebista - irrataria

'EXPEDIENTE X'-EN PRODUKTOREEN LANA HASIKO DA GAUR ETB1-EAN

'Space', abenturaz eta akzioz beteriko seriea

■ Telesail berria hasiko da gaur ETB1ean: 'Space'. 2163. urtean dago girotua, gizakiak unibertsoko beste planeta batzuk kolonizatzen hasten direnean. 'Expediente X' serieko ekoizleen lana da hau ere.

Erredakzioa / Donostia

GLEN MORGANEK eta James Wongek, *Expediente X* seriea ekoiztu zuten lagunek, produzitu dute gaur ETB1ean hasiko den *Space*. Zientzia-fikziozko seriea da. Aire Armadako 58. Eskuadroia gizon eta emakume bizkor eta pilotu bikainez osatua dago. Unibertsoko planeta gehienak alienigenen menpe daude, eta Eskuadroiko kideek planeta horiek kolonizatu nahi dituzte. Horretarako, zenbait alienigenaren aurka borrokatu beharko dute. Kapitulu bakoitza planeta bat eskuratzeko borrokaldiari buruzkoa da, eta larunbatero eskainiko du ETB1ek arratsaldeko hirurak aldera.

Morgan Weisser (Nathan West, seriean), Kristen Cloke (Shane Vansen), Rodney Rowland (Cooper Hawkes), Lanei Chapman (Vanessa Damphousse), Joel de la Fuente (Paul Wang) eta James Morrison (McQueen koronela) dira, besteak beste, serieko protagonistak.

Zientzia-fikzioak harrera ona • Euskal Telebistak zientzia-fikziozko telesailen aldeko apustua egin zuen joan den udazkenean eta



Larunbatero eskainiko dute *Space*, arratsaldeko hirurak aldera.

aurtengo programazioan ere jarrera horri eutsi dio. ETBren arabera, harrera ona dute zientzia-fikziozko serieek pantaila txikian. Udazkenean *Space Precinct* amerikarra aireratzen hasi ziren, eta denbora gutxi ba-

rru *Más allá del límite* seriea eskainiko du ETB2k. Etor-kizuna, aurkikuntza zientifiko ikaragarriak, fenomeno arraro eta beldurgarriak dira, besteak beste, *Más allá del límite* telesailaren osagaiak.

laburrean

Onartu dute Cablevisionen expedientea, baina ez kable bidezko telebistaren araua

Telefonicak eta Canal Plus sortu duten Cablevision enpresaren expedientea onartu du Madrilgo Ministro Kontseiluak. Kable bidezko telebistaren negozioan sartzeko asmoz sortu dute Cablevision. Kable bidezko telebistaren arauari, ordea, ez dio argi berdea eman Ministro Kontseiluak. Alfredo Perez Rubalcaba Presidentziako ministroak azaldu zenez, atzoko bileran ez zuten kable bidezko arauaren inguruan sakon aztertze astirik izan, eta horregatik, hain zuzen, ez diote argi berderik eman. Horrez gainera, Gobernu berriak onartu beharko lukeela azpimarratu zuen jarraian Rubalcabak. Izan ere, bihar bertan -hilak 3- izango dira Espainiako Estatuan hauteskunde orokorrak.

Modaren industriari buruzko erreportaia bihar 'Europa Europa' saioan

Modaren industriari buruzko erreportaia eskainiko du bihar ETB2ko *Europa Europa* saioak, eguerdi aldera. Urtean 200.000 milioi pezeta inguru mugitzen du sektore horrek. Europako errepideen eta Lisboako Droga Azterketa Gunearen gaineko beste erreportaia bi ere emango ditu.

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

Neska-mutilak

zuten mundua; eta, Rosa Leonen *Sopa de ganso* izeneko lan perfektua. Azken hori salbuespena baino gehiago diamante benetakoa zen. Umeek antzeztu egiten zuten, umeak kantatu egiten zuten, eta umeak ume izaten ziren azken finean, naturaltasunaren eremuetatik inoiz irten gabe. TVEk ondo egingo luke *Verano azul* melenga PSOEn bideoa baino bi bider gehiago jarri ordez, aipatutako Rosa Leon edo Xabier Sardaren saioak berpiztuko balitu.

Haria geuregana ekarriz, aipatu ETB izan dela haurrei plato ertzeetan lekua eta protagonismoa utzi dien azken telebista katea. *Hori da arrazoi* saioa -izen ziztrina, inondik ere-, helduei begira eta hauei zuzendutakoa da, zalantzarik gabe. *Toma y daca*-ren euskal eta gazte bertsioa. Baina ETB2koa baino askoz ere hobe. Funtsean biak dira eztabaida saioak, eta bien barne asmoetan polemika piztu nahi dute.

Joxe Felipe Auzmendik bideratzen du umeekiko hartu-eman hau. Au-

rretik, pertsona ezagun bat gonbidatzen dute aukeratutako gaiak hitz egin dezan. Horrela, lehen atalean, eta sexuari buruz hitz egiteko, Iñaki Perurena harrijasotzailea gonbidatu zuten. Heldutasunak naturaltasuna galtzea dakar. Umeak oraingoz artifiziotik libre daude, ordea. Eta hartu edo emateko nahi adina freskotasun badatikaten arren, hitz-jarioa falta zaie. Gainera, saioko aurreneko bi minutuak ikusi eta gero, hobe programako neska-mutilak ohean sartuko balira.

Aste honetan bigarren atala eskaini digute. Martxoaren 8aren atarian gaudenez gero, etorkizun hurbileko gizartea matxista izango ote den aztertzen saiatu ziren. Gehienak azken hitza botatzen ariko balitz bezala ibili ziren, bat bota bestea bota, inongo arrazonamendurik gabe. Diskurtso-rik gabe. Agian ezin zaie gehiago eskatu. Ados. Bada, orduan, murriz dezatela saioa. Eta nire galdera da: ezin al daitezke postproduzioan konpondu bost minutuko makina bat erantzun?

Ines Intxausti